



HERNANIKO EURONET 50/50 PROIEKTUAREN 1. BULETIN ELEKTRONIKOA



GUZTIOK ELKARREKIN, ENERGIA AURREZTEKO BIDEAN MURGILDUTA



Hermanin 3 ikastetxe gara, Udalaren laguntzari esker, energiaren kudeaketa arduratsuekin harreman zuzena duen Europa mailako programa honetan parte hartzen ari garenak.

Ekimen honek ikastolan kontsumitzen dugun energia aurrezteko eta eraginkortasuna handitzea bilatzen du eta horretarako ezinbestekoa da ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko gainerako eragileen ohituretan eragitea. Egitasmoaren jarraipena egiteko asmoz, **Energia-Taldea sortu dugu** eta bertan,

protagonismo nagusia ikasleek dute. Aldi berean, gela ezberdinetan energia-arduradunak ere baditugu gainerako ikasleei proiektuan ematen ditugun pausoen berri emateko eta **energiaren erabilerrari buruzko ohitura onak zabaltzeko**. Ikasturtea aurrera doan heinean gure erakinetako energiaren kontsumoa (argindarra, berogailua, ur beroa) ezagutzen joango gara eta ikasturte amaieran energia aurrezteko lortu dugun ikusteko aukera izango dugu (hau da, **aurrezpenik egon ote den behatzea ere egokitu**ko zalgu - energiaren aurrezpenaz gain aurrezpen ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatuko dugu-). Aurrezkitako zenbatekoaren erdia gure eskolak proposatu eta Energia-taldean adostutako jarduketara erosteketa batean erabiliko du Udalak, eta beste %50a Hernaniko Udalak erabiliko du energiaren arloko hobekuntzak egiteko Txirrita herri-ikastetxean.

Guztion parte hartzeari esker, ingurumenaren aldeko apustua egiteaz gain herritar aktibo eta arduratsuetan bilakatzea lortuko dugu.

2019-2020 ikasturtearen hasieratik hona emandako urrats nagusiak ondorengo berrietan ikus ditzakezue.



HERNANIKO UDALAREKIN IZANDAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN SINADURA- EKITALDIA

Euronet 50/50 proiektuaren nondik norakoak azaltzeko asmoz, Hernaniko Udalak bilera antolatu zuen, irailaren 24an, Biteri kultur etxean, ikastetxe ezberdinetako arduradunekin eta Udaleko ordezkariekin. Lehen urrats horren ondoren, **Hernaniko Alkatea (Xabier Lertxundi) eta euskara eta hezkuntza alorreko zinegotzia (Oier Agirresarobe)**, Udalak izendatutako arduradun teknikoak eta kontratatutako aholkularitza-taldeko kideak urriaren 8an gurea etorri ziren, Txirrita herri-ikastetxearen eta Udalaren arteko egitekoa zein konpromisoak jasotzen dituen ikasturte honetako hitzarmena sinatzera.

Sinadura-ekitaldian Energia-taldea osatzen duten adin ezberdinetako ikasleek ere parte hartu zuten. Horrela, udal ordezkariak energia ardatz zuten bertso bat botatzen zieten.



ENERGIA GERTUTIK EZAGUTZEKO SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK

Energia zer den gogora ekarri eta berau modu jasangarrian erabiltzeko ohitura onak zeintzuk diren ezagutzeko asmoz, **azaroaren 7an Energia-taldeko kideek gure eskolako energia-ibilbidea osatu zuten** Udalak izendatutako langilearekin eta Udalak kontratatutako aholkularitza-taldeko kideekin (bilbide horri esker ikastetxeko azpiegitura energetikoa osatzen duten elementu ezberdinak bisitatzeko aukera izan genuen). Eskolako energia-instalazioak bisitatu ondoren, ikasleek formakuntza- eta sentsibilizazio-saio bat egin zuten eta amaieran, **ikasle bakoitzari energia-inspektorearen diploma banatu zitzaion**.



GABONETAN ERE ENERGIARIK EZ ALFERRIK GALDU!

Gogoratu, energia onena kontsumitzen ez dena da! **Gabon garaian** kontsumo-ohiturak orokorrean aldatzen direla kontuan hartuz, **jarrai itzazu gomendio hauek**:

- Gabon-zuhaitzeko eta apaingarrietako argiak soilik bertan zaudenean piztu. Horrela, dirua aurreztu eta CO₂ isurpenak murriztuko dituzue.
- Kontsumo baxuko argiak erabili, edo eta eraginkortasun handiagoa dutenen alde egin eta progresiboki ordezkatzeko joan.
- Erosketak egiterako orduan, baztertu kotxea eta herrian bertan erosi opari zein jakiak. Ibilgailuaren erregaia eta dirua aurrezteaz gain, bertako merkatariek lagunduko dituzue.
- Pitarik gabeko jostailuak oparitu. Eta tresna elektronikoak oparitzu gero, ziurtatu A+++ , Energy Star edo antzerako etiketa dutela.
- Etxetresnak Stand by egoeran egon daitezen ekidin. Horretarako, erabat itzali direla ziurtatu ezazu, sare elektrikoetik erabat deskonektatuta utziaz.
- Hozkailua ireki aurretik, pentsatu ezazu zer hartu nahi duzun. Barruko hotzak ihes egitean energia alferrik xahutzen duzu.
- Hotz eginez gero, edariak kanpoan utzi ditzakezue fresko edukitzea.
- Sukaldean aritzeko garaian, ez erabili behar baino zartagi edo lapiko handiagoak. Energia gehiago beharko duzu jakiak prestatzeko.
- Ohiko lapikoaren ordez, erabili presio-eltzea. Denbora eta energia aurrezkitu dituzue.
- Energia berriztagarriak soilik merkaturatzen dituen banatzaile bati erosi zure etxeko argindarra.
- Egunean etxeko temperatura 19-20 gradu bitartean mantentzea aski da giro egokia izateko. Gauean, berriz, 15-17 gradu bitartean izatearekin aski izango dugu.
- Eguzkia dagoenean gortinak eta pertsiak zabaldu, etxea berez berotu dadin. Gauean, berriz, itxita mantendu itzazu, barruko beroak ihes egin ez dezan.
- Etxea aireztatze aski dira 10-15 minutu. Leihoak denbora luzean zabalik utzita etxeko temperatura jaitsi eta berotzeko energia asko xahutuko duzu.
- Leiho eta ateaik ondo itxen direla ziurtatu eta, ahal baduzu, etxeko isolamendu termikoa hobetu.
- Etxetik kanpo zaudenean berogailuak itzali.